

Euskaltegi Sarea sendotzen Darabilbori esker

HIRIAN dauden euskaltegi guzti-guztiek osatzen dute Bilboko Euskaltegi Sarea. “Beti batu izan gara euskararen aurkako erasoei eta holakoei aurre egiteko”, diosku Aitor Argotek, “baina Darabilboren kasuan, elkarlan hori zer edo zer sortzeko izan da; ez dut esango Darabilbori esker jarri dela martxan Sarea, baina bai Darabilborengatik indartu dela”.

Darabilboren haritik tiraka, kezkak agertu dira: euskararen erabilera Bilbon, berbalagun taldeak... Ez dira kontu berriak, baina orain, behintzat, horien gainean hitz egiteko maiztasun finkoz elkartzeko hasi dira Euskaltegi Sareko kideak.

hartzeko du eta aukera gehiago izaten da elkarrekin hitz egiteko”.

Bestalde, kontuan hartu behar da 2014ko egitarauak bi hilabete gehiago dauzkala –maiatzean eta ekainean ere aritu dira– baina aurrekontua iazko berdina dela. Ezin egunero zerbait egin.

Euskaldun guztiengana iritsi nahian

2013koa baloratzean, zabalkundearen alorrean egiten dute auto-kritikarik gogorrena Argotek eta Agirregomezkortak. Diotenez, ez zuten asmatu euskaltegiatik eta berbalagun taldeetatik kanpo Darabilboren berri ematen. “Iazko ekintzetan 750 lagunek parte hartu zuten, horien erdia euskaltegiatiko ikasleak, eta laurdena berbalagunak”. Gainerako euskaldunak, beraz, laurden bat besterik ez ziren izan.

“Beharbada ez genuen jakin Darabilbo zer den esaten”, aitortu du Argotek. Hori dela eta, indartu egin zuten Darabilbo 2.0 iragartzeko kanpaina. Iaz sare sozialetan eta interneten baino

ageri ez zena aurten kalean ere izan da, kartelen bitartez.

Euskararen ezkutuko ahalmena

Bilbon euskarak uste baino indar handiagoa duela uste dute; lozorroan dago indar hori, ordea, eta iratzartzea da gakoa. Aitor Argoteren esanetan, euskaldun oso eta euskaldun funtzionalak batuta, 170.000 lagun dira Bilbon euskaraz aritzeko gauza, hein batean edo bestean. Izan ere, saiatu dira entzule huts modura gustura egon daitekeen ekitaldi batzuk eskaintzen, berbetan has-teko erraztasun edo ausardiarik ez dutenen mesederako.

“ETBn zebilen Iparraldeko kazetari bati entzun nion Baionan ez zuela posible egunean 24 orduz euskaraz egitea, eta aldiz Bilbon bai”, gogoratu du Aitor Argotek, “hara!, eta bilbotarrok konturatu gabe!”. Ezkutuan dauden aukera horiek ikusarazteko, aisia euskaraz kontsumitzeko katalogotxoak sortzeko erronka ipini diote euren buruari. Darabilbo existitu baino lehenago bazeuden aukerak, eta hortxe jarraituko dute Darabilbo desagertzekotan ere –“ez dakigu hau noiz arte egongo den”–; ekimenak balio izan die, hori bai, aukera horietako askotaz jabetzeko. “Bilbon gero eta euskara gehiago dago, kontua saiatzea da”, dio Argotek, “bazoaz ez dakit nora eta dena erdaraz da, baina halako batean batek euskaraz egin eta hara non euskaldunak agertzen dira han-hemenka, hori gertatu izan zaigu”.

Dokumentazio lana egiten hasiak dira, euskaldunak aukera horien berri eduki dezaten. Ez hori bakarrik: euskarazkoa azaleratzeaz gain, erdara hutsezkoa euskalduntzen ere saiatu nahi dute. Agirregomezkortaren hitzetan, “hainbat ikastaro, tailer... egiten dira gaztelania hutsean, eta antolatzaileei jakinarazi nahi genieke badela publiko bat horiek euskaraz kontsumitzeko”. Badute lanik, Darabilbo 3.0 egingo ote den itxaron bitartean. ■



VITORIA
GASTEIZ
green capital

Gasteizen euskarazko
hauek ez galdu



Lantegiak, ikastaroak hitzaldiak, aurkezpenak...

• ZERTAN DATZA TRANSFEMINISMO IZENEKO HORI?

Hizlaria: Josebe Iturrioz Lopez
Moderatzailea: Zuriñe Estivariz
Montehermoso
Urriak 8, 19:00-21:00

• FEMINIST AGENDA EUSKAL LITERATURAN

Iparralde GEko liburutegian
Urriak 8, 19:30
Hileko 2. ostegunetan ekainera arte

• IRAKURLE KLUBA

2014-2015eko egitarauaren aurkezpena
Ignacio Aldecoa kultur etxea, 20:00

• EUSKALTASUNAZ SOLASEAN:

zure nortasunaren mugarriak ezagutzen al dituzu?
Dokumentala: ORREAGA 778-824.
Le chanson de Roland' (Nabarralde)
Solosaldua
Urriak 22, 19:00

• GASTEIZKO MINTZALAGUNA

Aurkezpen ekitaldia. Montehermoso
Urriak 30, 20:00

Haurrak eta familiak

• IRRIPUINAK ANE PIRATAREKIN

Ipuin kontaketa antzeztua
3-8 urteko umeentzat
Urriak 11, 12:00
Elkar aretoa

• CHAPLIN, JATERA!

Teatro Paraíso (Abetxuku Pueblo, 14)
Urriak 24 eta 25
3-5 urteko umeentzat, 6 euro

• ERRALDOI BIHOTZGABEA

Txotxongilo tailerra
Toki Eder ikastola
Urriak 26, 17:00-19:00

Antzerkia

• PANKREAS

Printzipal antzokia
Urriak 15, 20:30

Zinema

• FILMAZPIT ZIKLOA

Beldur film bilduma 2
Montehermoso
Urriak 9, 19:00

_Maite duzun hura, euskaraz!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala